

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
3 positibo berri	1.611 hildako	7 positibo berri	528 hildako
2.308 positibo guztira*	6 UCIn	5.443 positibo guztira	2 UCIn
*Hernanin 66 Astigarragan 21		Sendatuak EAEn: 18.037 Naf.: 9.225	

## Kale ikuskizunak, antzerkia, zinea eta bertso saioa izango dira Ereñotzuko Uda Kulturalean, uztailean

Uda Kulturala antolatu du Olak Auzo Elkarteak Ereñotzun, eta kultur ekitaldiak egingo dira uztailean zehar. Antolatu dituzten sei saioetara joateko izena eman beharko da, eta aforo mugatua egongo da emanaldi guztietan.

### EREÑOTZU UDA KULTURALA

Datorren ostegunetik hasita ez da aspertzeko unerik izango Ereñotzun. Uda Kulturalak askorako emango du, izan ere, uztaile amaierara arte musika emanaldiak, zinea, kale ikuskizunak, bertso saioak eta antzerkia antolatu dituzte auzotarrek. Sei saio izango dira guztira, eta plazan egingo dira.

### Hamaika egiteko izango dira, uztaile osoan zehar

Udari hasiera ezinhobea emango diote Ereñotzukoek, eta bertso saioak irekiko du Olak Auzo Elkarteak antolatutako egitaraua. 19:30etan hasiko dira bertsoetan Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Eli Pagola eta Unai Iturriaga. Antolatu duten lehenengo saioa izango da osteguneko,

eta ekitaldi guztien moduan, auzoko plazan izango da.

Ostiralean gaueko plangintza izango dute. Hain zuzen, 22:00etan En Tol Sarmiento musika taldeak jarriko dio duina udako gauari.

Uda kulturalaren hirugarren plana zinea izango da, uztailearen 11n. *Small foot* pelikula ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek eta antolatzailerak aire librean egitea erabaki dute, kultur ekitaldiarekin batera udako gau giroaz gozatu ahal izateko.

Kale ikuskizunak emango dio jarraipena uztaileko kultur plangintzari, uztailearen 16an. Debote Enbote konpainiak *Vademeku* aurkeztuko du, arratsaldeko 19:30etan Ereñotzuko plazan, baita ere.

Uztailearen 18an zinearen bi-



Emanaldi bakoitzeko izen emateak emanaldia baino astebete lehenago hasiko dira.

garren txanda izango da. Oraingo honetan ere aire librean izango da, gaueko 22:00etan. *Green Book* pelikula jarriko dute, 12 urtetik gorakoentzat.

Antolatu duten azken emanaldia *Zoaz pake santuan* antzerkia da, uztailearen 23rako.

Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean, Mikel Laskurain eta Ane Gabarainek aurkeztuko dute obra. Entretenezko eta barre egiteko tartea izango dute auzotarrek, 19:30etatik aurrera, bikote harremanetan gertatutako gorabehera barregarriekin.

### Zenbait ohar, emanaldietara joan ahal izateko

Aforo mugatua da saio guztietan eta horregatik, antolatzailerak jakinarazi dute beharrezkoa izango dela alde aurretik izena ematea, 688780356 telefonora deituz edo *WhatsApp* bitartez. **K**

## Herriko artista txikienek egindako artelanekin inauguratuko dute Erribera Kultur Etxea, udazkenean

Bihar eta ostegunekoan izango da hurrek konfinamenduan egin dituzten lanen bigarren bilketa, uda osteko inaugurazioan erakusteko.

### ASTIGARRAGA KULTUR ETXEA

Herri Eskolarekin lankidetzan, Astigarragako Udalak proposamen bat luzatu zien herriko haur guztiei: itxialdian egindako artelanak aurkeztea, Erribera Kultur Etxea inauguratzen denean erakusketa batan jarzke.

Horrela, bihar eta ostegu-

nean izango da herriko artista txikiak egindako artelanak bilketeko bigarren txanda.

Ia bi hilabete oso pasa dituzte hurrek kalera atera gabe eta gainontzeko umeekin jolasteko aukerik ez dute izan. Etxean ordu asko eman dituzte eta asko dira egun horietan sormena eta imajinazioa artelanen bidez garatu dutenak.

Horregatik, Herri Eskolakoei eta Udalari bururatu zitzaizen ideia ona izango zela txikienek konfinamenduan eta orain arte egin dituzten marrazkiak eta eskulanak Erribera Kultur Etxea inauguratzen denean erakustea. Hori horrela, asmoa da Astigarragako umeek egindako artelan guztiak erakusketa bat egitea.

Artelanak orain jasoko diren arren, erakusketa ez da udazken arte izango. Izan ere, egungo kultur etxetik berrirako trasladoa uztailean egingo dutela

jakinarazi zuen Udalak, baina inaugurazioa udazkenean izango da, ziurrenik iraila edo urri aldera. Edozein kasutan, ateak irailan irekitzeko asmoa dutela esan dute.

### Bi egunez egingo dira bilketak, bigarren txanda honetan

«Zure artelanak ekarri eta izan erakusketako artista!», luzatu dute antolatzailerak. Lehen jaso-keta bat egin zen, eta bihar eta ostegunekoan bigarrena egingo da. 16:00etatik 18:00etara bitartean izango dira txikienek egin-

dako piezak jasotzen.

Hala ere, jakinarazi dute bigarren txanda honetan artelanak entregatzeko lekua ezberdina izango dela: bihar J.B. plazan izango da eta ostegunekoan, 16:00etatik 18:00etara bitartean, Erribera Kultur Etxean (Kontxa Etxeberria plaza). Sarrera nagusian jasoko dituzte artelan guztiak.

«Etxeko txikiak izan daitezela Erribera Kultur Etxeko lehen artistak!», luzatu diete antolatzailerak txikienei, artelanak entregatzera motibatuzko. **K**

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

Asegururik ba al duzu?  
**Deitu Orbegozora**

24 orduko tfnoa.  
**943 33 10 20**

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

\* Zerbitzu partikularrak eta aseguru txarrekin  
\* Erresketak  
\* Lekualdatzeak  
\* Beilatokiak  
\* Eskelak, korreak...

**OGI BERRI**

OKINDEGIA GOZOTEGIA

Kontxa etxeberría 2  
Astigarraga  
943 12 64 24

**Zorionak, 45 urte ezkondu zinatela!**

**Familiaren partez**

**EGURALDIA GAUR** Hodeiak ugarituko dira eta tenperaturak behera egingo du. Eguna lainoan hasiko da, eta zirimiria apur bat egin dezake. Hala ere, arratsaldean ostarrateak zabalduko dira. **Min.17° / Max.23°**

**BIHAR** Giro iluna eta freskoa izango da, hodei-geruza trinkoekin. Goizean euri apur bat egingo du, baina arratsalde-gau partean argitzeko joera hartuko du eguraldiak. **Min.16° / Max.20°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

**LAGUNTZAILEAK**

**Hernaniko Udala**

**Astigarragako Udala**

**Donostia Auzo Udala**

**GOIZUETA UDALA**

**ARANOKO UDALA**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Odriozola** Idiazabal, 18 (Urnieta) **943 334014** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

**ISUN JARDUNALDIA**  
GOBIERNO VASCO

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**

## Goizuetatik Hernanira alderako errepidean 5 kurba zabalduko dira

Lehendik zabaldu bai, baina oraindik asfaltatu gabe gelditu ziren kurbetan lanak egiten hasiko dira errepidean.



Bihar hasiko dituzte errepideko ikusgarritasuna hobetzeko obrak.

**GOIZUETA-HERNANI ERREPIDEA**

Duela zenbait urte hobekuntzak egin zituzten Goizueta eta Hernani lotzen dituen errepidean. Hala ere, orain bost kurba berri egingo dizute. Izan ere, «ikusgarritasuna asko hobetu bazen ere, lanak guztiz bukatu gabe gelditu ziren».

Horrela, bihar hasiko dira Hernani alderako errepidean egindako lur-erazketak asfaltatzen, bihurguneei zabalera gehiago emanez. Zati batzuetan ez dago ikusgarritasun ona, eta

urtetan zehar istripuak gertatu dira errepide horretan.

Arrazoi horrengatik hasiko dituzte obrak Goizuetatik Hernani alderako errepidean, hain zuzen: ezbeharrak saihesteko eta egunerokotasunean ere bide erosogoa izateko. Hala ere, bidea ez da itxita egongo.

**Guztira bost kurba zabalduko dira, errepide osoan zehar**

Goizuetako Udalak jakinarazi duenez, Belakoko azpian, Bekoite inguruan, Anaxuri inguruan eta Arranbide baina lehenagoko bitan egingo dituzte bost kurba berri, eta errepidea hobetuko dute obra honekin. **K**

## Juaneneak eta Endikak finalerdia ziurtatu dute Galarretako txapelketan

Goikoetxea V eta Barrenetxea IVak puntu egin eta lehian mantentzea lortu dute.

**HERNANI ERREMONTEA**

50garren Urteurreneko Txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu zen atzo, eta Juanenea eta Endika nagusitu ziren, 35-30 Ansa II.aren eta Larrañagaren aurka. Bigarren partiduan Urriaza eta Zubiri izan ziren garaile, 29-30 Goikoetxea V.aren eta Barrenetxea IV.aren aurka.

Garaipen honekin Juaneak eta Endikak zortzi puntu dituzte sailkapenean eta gutxienez txapelketako finalaurrekorako txartela ziurtatu dute. Gainera, datorren asteko



Pilotariei erritmo biziagoa nabaritu zitzaizen txapelketako bigarren jardunaldian.

hirugarren partiduan puntu bat lortzen badute finala ziurtatuko dute, ligaxkan lehen postuan geratuko direlako.

Atzoko partidarekin Ansa II eta Larrañagak bost puntu batu zituzten. Urrizak eta goizueta-rrak, aldiz, lau; bat gehiagorekin finalerdia ziurtatuta dute.

Bestalde, Goikoetxea eta Barrenetxea atzelari hernaniarra hirugarren jardunaldian irabaztera behartuta daude. Gutxienez puntu bat lortu zuten 29. tantora iritsi zirenean, eta horrek oraindik itxaropentsu mantentzen ditu, izan ere, hori gabe orain kanporatuta egongo lirarteke. **K**

## Publikoaren saria jaso du Kilimak taldeak

Maketa Lehiaketako Entzulearen GazteBizHitza Saria irabazi du musika talde hernaniarrak, jasotako 2.876 botorekin.

**HERNANI KILIMAK TALDEA**

Gaztea Maketa Lehiaketaren 29. edizioko finalean izan zen Kilimak talde hernaniarra. Lau finalista atera ziren Victoria Eugeniako antzokiko oholtza gainera, eta bertan izan ziren hernaniarrak beraien estiloa defendatzen. Hala ere, epai-

mahaikideek Raitx izendatu zuten lehiaketako irabazle. «Lan zaila izan da, maila handiko eta estilo oso ezberdinetako musikariak lehiatu baitira».

**Entzuleen finalista gustokoena izan da Kilimak taldea**

2.500 euroko saria jaostzeaz gain, guztira 2.876 boto jaso ditu talde hernaniarrak, eta horrengatik, entzuleen aurtengo talderik gustokoena izan da Kilimak. Taldekideak oso pozik daude lortutakoarekin: «izugarria Gaztea Maketa Lehiaketan bizitako esperientzia. Berriz ere, lanean segitzeko indarrekin!». **K**

## Zenbait kaleetan aldaketak emango dira

**HERNANI KALEAK**

COVID-19ak eragindako larrialdi egoeran hainbat kale oinezko eta bizikletentzat gorde ziren igandeetan, baina Udalak jakinarazi du neurri hau «dagoeneko ez dagoela indarrean».

## Boleibolean izena emateko epea, zabalik

**HERNANI BOLEIBOLA**

Hernani Kirol Elkarteko Boleibol atala datorren denboraldiari begira dago jadanik eta izen-ematea martxan jarri dute antolatzaileek.

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



Zure maitasuna bihotzean daramagu, zure irrifarra begietan, zure momentu goxoan oromenean, zure gogoa gurekin aurrera doa. Maite zaitugu  
**ZURE EMAZTEA ETA SEME-ALABAK**

"Betirako gure bihotzean"

XI. Urteurrena

Enrique Berdonces Gil

21-VIII-1947 / 28-VI-2009

## IRAGARKI MERKEAK

Astigarragako sagardotegi batean lan egiteko zerbitzari bat behar da. Urte osoko lana.

Idatzi: [landepartamendua@gmail.com](mailto:landepartamendua@gmail.com)

**18 urteko neska gaztea lan bila**, edozer lanetarako prest. **Deitu: 653 733 620**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

**SETIEN SAGARDOTEGIA**

**IREKIERA: UZTAILAK 3**

**Udako menua**  
Ostiral gaua, larunbat osoa eta igande eguerdia

**Oztaran auzoa, URNIETA. 943 55 10 14**

sulabe

**Valella okindegia**

Nagusia 27  
Astigarraga  
943 33 24 10

**BRINTZA**  
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Lan-Aholkularitza  
Fiskala  
Aseguruak Inbertsioak  
Zerbitzu Juridikoak

[www.brintza.com](http://www.brintza.com)

URBIETA KALEA 15, HERNANI  
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92